

BUELTA EMATEN BADUZU... GABARDINA LAPURTZEN DIZUTE...

Egun batean bazeuden aitona bat eta bere biloba Arkangoa ondoan paseatzen.

- Aitona, zer da etxe handi hori? Itxita dago?– Bilobak galdetu zuen.
- Bai maitea – Aitona eratzun zuen- Orain dela urte asko etxe hori oso ospetsua zen. Historia zahar bat badakit... Nahi duzu entzutea?
- Bai, noski! Aurrera! – Bilobak erantzun zuen.
- Bazen behin, ez dakit nola, ezda noiz, orain dela urte asko, toki eder bat zegoen, Paraíso deitzen zena. Eta, zer gertatu zen Paraison? Paraíso diskoteka eder bat zen...
- Bai, baina non zegoen Aitona... Etxe honetan?- Bilobak.
- Lasai mutil... horaintxe kontatuko dizut... - Aitonak erantzun zuen. – Diskoteka honetan beti elkartzen ziren altsasuko bi laguna, Peio eta Antton. Txikitatik lagunak ziren eta oso ardozaleak ziren
- Bai, baina aitona, nolakoa da Ardozale bat? – Bilobak.
- Begira maitea, ardoa asko gustatzen zaion norbait... Txikiteroak esan beharko...- Aitonak erantzun zuen.
- Ah! Bale, bale, segi mesedez!- Bilobak esan zuen.
- Gure txikiteroak asteburuero Paraison elkartzen ziren eta kristoren parranda egiten zuten...eta biek neska berataz maitemindu ziren– Aitonak kontatu zuen.
- Nola deitzen zen neska hori aitona? – Bilobak galdetu zuen.
- Bai, bai maitea, banoa... Neskak Joxepi izena zuen. Peio eta Antton oso lotsatiak ziren, baina badakizu... bi ardoekin oso berritsuak eta alaiak bihurtzen ziren. Haiak beti barra ondoan zeuden eta beti Joxepi begiratzen zuten... Denbora pasatzen zen eta beti berdina... Asteburuero Paraison eta Joxepi begiratzen. Egun batean apostu bat egitea erabaki zuten: ausartu behar ziren eta saiaturko ziren bere maitasuna lortzen.
- Baina aitona, biak? – Bilobak galdetu zuen.

- Bai maitea biak – Aitona erantzun zuen.
- Baina hiruak elkar zitezkeen? – Berriro bilobak.
- Ez, lasai. Apostu bat zegoen, bi lagunek saiatuko ziren baina haiek ez zekiten nork lortuko zuen...- Aitonak kontatu zuen.
- Ez dut ulertzen asko, baina segi mesedez – Bilobak esan zuen.
- Peio egun batean Paraison, beti bezala, eta agian ardo apur batekin, atera zen barra ondotik eta neskarengana joan zen.
- Ka, ka, Kaixo, ni, ni, ni Peio naiz – Peiok neskari esan zion.
- Bai, badakit – Erantzun zion Neskak Peiori.
- Ah, bai? Gustatzen zaizu mendia? – Peiok neskari galdetu zion.
- Bai asko. Zergatik? – Neskak Peiori erantzun zion.
- Nahi baduzu Dantzalekutik buelta bat emango dugu.... – Peiok neskari proposatu zion.
- Bai, noiz, bihar?- Neskak erantzun zion Peiori.
- Bai zazpietan hementxe (Paraison) geldituko gara? – Peiok.
- Ados nago – Neskak.
- Peio eta Joxepi hurrengo egunean elkartu ziren Paraison, dantzalekura joan ziren eta oso ondo pasatu zuten – Aitonak.
- Baina aitona, Anttonek zer egin zuen? – Bilobak galdetu zuen.
- Bai mutiko, hurrengo asteburuan Antton bost ardoekin.... Bakarrik, lotsa kendu zuen eta neska gonbidatu zuen Pakito Txokolatero dantzatzera... Eta Peiori ez zitzaion batere gustatu... eta ostikada eder bat eman zion Anttoniri... Borroka bitartean, Joxepi beste mutil bati laguntza eskatu zion. Mutil hori oso maltzurra zen, eta Joxepi eraman zuen San Pedrora.... Zerbait egitera...
- Zertara aitona?- Bilobak aitonari galdetu zion.
- Badakizu mutiko... Ziza bilatzera... - Aitonak.
- Baina aitona.... – Bilobak

- Aski da maitea!... Eta azkenean haiek ezkondu ziren Kaputxinoetan eta bederatzi hilabete beranduago... Zure amatxo jaio zen.- Aitonak
- Baina aitona, ez dut ulertzen – Bilobak
- Handia izango zarenean ... ulertuko duzu – Aitonak
- Eta Peio eta Anttonekin, zer gertatu zen?- Bilobak
- Ez dakit maitea, asko gorrotatu ninduten eta... beti bezala... tabernetan egongo dira... Paraison orain ez... itxita dago eta...

Eta ala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila... Altsasuko Plazan....

Egileak: Patxi Rabaz
Mertxe Alonso
Pedro Beraza
Juan Angel Beraza
Marian Carrasco
Matias Rayo